An aerial view of the Earth from space, showing a curved horizon with green landmasses and blue oceans. The sky is filled with white, fluffy clouds. A semi-transparent dark blue rectangular box is overlaid on the lower half of the image, containing the title and a quote.

MUNDUARI SO

“Demokrazia pribatizatzeko, kendu behar dizkiezu komunitate politikoei beren burua gobernatzeko gaitasun territoriala eta politikoa.” (J. Goikoetxea)





Iratzar Fundazioa

Zuatzu enpresa parkea


Easo eraikina 4, behea

20018 Donostia (Euskal Herria)

fundazioa@iratzar.eus

www.iratzar.eus

Lege Gordailua: SS-01214-2019



-MUNDUARI SO-

AITZIN HITZA

Globalizazio eta finantza-markoak eraldakuntza handia jasan du azken urteetan. Mutazio historiko hori 70eko hamarkadako krisiari, 90.ekoari eta 2008koari emaniko erantzunen segida dela esan daiteke. Kapitalismoa sistema oso malgua den arren, aldiro errepikatzen diren ezaugarriak ditu. Aipatu dugun etapa bakoitza gaur bizi dugun bizitza eta lurraldeen pribatizazioa prestatzen joan da eta era berean, erakundeak, pertsonen bizitzak, botere harremanak eta erabakiguneak eragin baino formateatu dituzte.

Ondorengo lerroetan **Jendarte, Merkatu eta Estatuaren arteko** aldaketa konplexu horri erreparatuko diogu. 2019. urteak ez ditu lehia berriak ekarri, jada agerian geratu diren batzuetan sakondu du ordea: nazioarteko instituzioen krisian eta demokrazia eta eskubideen atzerakadan. Benetako berritasuna, aitzitik, lehia edota gatazka horiek subjektu eta ideia berriekin lagunduta etortzean datza. Horiek guztiak kontutan izango ditugu jarraian aurkeztuko dugun irakurketan eta egin ohi dugun bezala irakurketa ondorengo atalek gidatuko dute:





-MENDEBALDEKO HERRIALDEETAN-

JOERA SOZIOLOGIKOAK

Esan bezala, 2019. urteak ez ditu lehia berriak ekarri. Ondorengo joerak, ordea, are nabarmenago utzi ditu, hein handi batean aipatu ditugun hiru eragile horien arteko harremana edo harreman faltagatik sortu diren adierazpena eta inplikaziotik:

Plataforma kapitalismoaren ondorioak gure jendartean

XXI. mendeko kapitalismoaren lehengaiak datuak dira, eta datuen esplotazioaren baitan baliabide komun, publiko eta pribatuak erabiltzen dira

errentismo eta kapital metaketarako. Ustiapen plataformek, algoritmoen eta atomizatutako lanaren bitartez, datu horiek monopolizatu, antolatu, aztertu erabili eta saltzeko negozio bide bat eskaintzen dute.

Datu horien iturburu gara erabiltzaileok, langileok, administrazio publiko eta mota guztietako erakunde publiko, pribatu eta komunitarioak, eta plataforma digital kapitalistak aparatu extraktibo ezin hobeak dira.

Gure bizitza pribatua, besterik ez dagokigu. Harreman publikoek eta espazio/baliabide publikoaren erabilerak sortutako informazioa, kanporatua “esternalizatua” dugu, baina era berean kapitalismo honek gure erlazionatzeko, espazio publikoa sortzeko,



manerak aldatu ditu. Teknologia eguneroko lagun bilakatu zaigu, baina orain arte ezagun zitzaizkigun emozio- eta zaintza-kodeetatik urrun.

Ekonomia kapitalista digitala da bere negozioetarako informazio teknologia, datuak eta interneten beharra duena da. Sektore tradizional guztiak zeharkatzen ditu, eta zabaltzen doan azpiegitura eta jarduteko modua da, kapital metaketaren prozesua azkartu eta kontzentratzen duena.

Plataformak teknologiko kapitalistak, zentzu honetan, sistema kapitalistaren aktore ekonomikoak dira, eta, jakina denez, langileak isolatu, esplotatu eta menperatuz mozkin handienak lortzea dute helburu. Beren dinamismoari eta zentralizazio gaitasunari esker eredu hegemoniko ari da bilakatzen harreman kapitalista globalizatuen esferan, baina pixkanaka lurraldetuz, eta gure bizitzetara eremu askotan gero eta irismen handiagoarekin.

Lanaren eta kapitalaren arteko menpeko harremana areagotu du plataformen kapitalismoaren paradigmak. Lana eta eskubideak antagonikoak bilakatu dituzte. Plataforma kolaboratiboaren ideia liberal utopikoa atzean geratu da, zentralizazioari eta etekinen areagotzeari bide emanez. Horrela, baliabide pribatuak konpartitzearen baitako ideiekin zabaldu badira ere, oinarrian irabazi handiak lortzen dituzten eragile ekonomiko ahalmentsuen bitartekariak dira. Baliabide horien kontrola, izango da etorriko diren gatazken iturria, Huawei korporazioa eta AEBen arteko aferak erakutsi digun bezala. Estatuen eta multinazionalen arteko gatazka konplexuak ikusiko ditugu.

Bestalde, eta ikusten ari garenez, plataforma kapitalismoko eragile multinazionalen eta tresnen izaera digital deslurraldetuak hainbat arazo sortzen dizkie estatuei, beren izaera analogiko eta

lurraldetuan, bereziki, fiskalitate alorrean, edota jarrera oligopolikoen ondorioz. Azken horrek lan eskubideen higatzea eta ezberdintasunak areagotzen dituelako, edota plataforma digitalen existentziak hainbat sektoreetan dakarren eraginagatik; etxebizitzan adibidez, errentismo inmobiliarioa sustatu du-. Fenomeno hori 2019an zehar kontsolidatu da eta aurrerantzean, multinazional digital bakan batzuen hegemonia eta kontzentrazioa nagusi izango da.

Gure bizitzak, gure denbora, espazioa eta harremanak eraldatu nahi ditu plataforma kapitalismoak, errazago pribatizatzeko, gureak ez izateko, prozesu kolektibo eta emantzipatzaileak ekiditeko, inoiz baino gehiago pertsonala ekonomikoa (eta digitala) bilakatu dela esan dezakegu.

Hori dela eta, teknologiaren eta honen erabileraren politizazio eta birjabetze bat beharrezkoa da, teknologiak herritartu eta kolektibizatuz, eduki eta teknologia libreen ildotik, plataforma kooperatiba publiko/komunitarioak sortuz, eta burujabetza teknologikoa emantzipazio borrokan agendara ekarriz. Mundu mailan, eta gure lurralde eta harreman guneean bide horiek jorratzen hasiak dira, eta indartzeko ordua da.

Harresi fisikoak eta sinbolikoak

Kapitalismoak sorrarazi dituen gatazka militarrek, humanitarioek, ekologikoek politika sekuritarioei bidea zabaldu diete, eta ondorengo urteetan mugen militarizazioa eta mugen kontrolen pribatizazioa indartuko dira.

Europako ekialdean ikusten ari garen fenomeno da, nabarmenki NATOren presentziak logika militarra indartzen duelako. Aitzitik, mendebaldean eta Hego mendebaldean mugak "zigilatze" edo ixteko



borondate fermua etengabea bada ere, toki guztietan logika bera hedatzen ari da. Jakina denez, jabego-harremanen aldaketak kapitalismoaren ekoizpenaren hazkundera azaltzen du eta honek segurtasun eta militarizazio irizpide fermuak behar ditu bere interesak aurrera eramateko. Nazionalismo apokaliptikoak, autoritarismoak eta heteropatriarkatuak gure garaia ezaugarritzen dute.

Halere, lurraldeen militarizazio eta bizitzaren pribatizazio horri aurre egiten tokian tokiko zein lurraldeen gaineko dinamika positiboak topatzen ditugu. Bai eta horren inguruan sortzen ari diren borroka subjektu berriak, eta denen ardatza burujabetza dira.

Sare sozialek eta plataforma digitalek, bestalde, muga fisikoak gainditzen dituzte eta ideia, zein kulturen arteko elkar trukaketak eta informazioen joan-etorriak ahalbideratzen dituzte, hainbat momentutan dinamika eta erantzun politiko eta sozial globalak artikulatu arte.

Era berean, krisiek sorrarazitako pertsonen mugikortasunak, gure herri eta hiriguneen soziologia aldatu du. Garai arriskutsu hauetako ezaugarri handietariko bat ezberdintasunak dira, eta muga sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta politikoak sortu dituzte agertoki politikoetan. Horiek guztiak eragin zuzena izaten ari dira. Hiri handietan, dinamika global hegemonikoa, pertsonen arteko polarizazioa eta hiritartasun toxikoa egituratzen ari da. Jokoan dagoen binomioa zera da: hiritartasun inklusiboa eta pertenezentzia sentimendu errepublikazaleak vs hiritartasun baztertzailea eta kosmopolitismo hegemonikoa.

Mugen militarizazioak indarkeria egoeran murgiltzen ditu etorkinak eta gerreatik lehorteetatik eta goseteetik ihesean datozen errefuxiatuak. 2019-20 urteak ez dio joera honi bizkar emango, mendebaldeko gobernantzak kulturalki eta legalki

eraiki dituen pentsamendu eta praxiak pertsonen eta bereziki emakumeen trafikotik edota mafiaekonomiatik irabazi handiak ateratzen dituztenen esku uzten eta abandonatzen dituelako. Ildo beretik oso adierazgarria da Europar Parlamentuaren baitan sortu diren lan-talde berrien artean “Bizi estilo europarra” martxan jarri izana, eskuin muturrari egiten zaion keinua eta ateak irekitzea baino, protekzionismoa sustatu nahi duena.

Ekonomia globalak bere ordena sozial eta ekonomikotik at pertsona asko kanporatu ditu, kontsumitzaile zein lan indarra izan ez daitekeen oro. Logika horrek sistema kapitalistaren ondorio suntsitzaileak azaltzen ditu, eta pertsonentzako bereziki zaurgarriak ez diren ondorioak ditu.

Instituzio eta politikarekiko konfiantza krisia, eta ziurgabetasun pertzepzioa

Demokraziaren pribatizazioaren ondorio bat instituzioekiko populazioaren mesfidantza areagotzea izan da, ez da promesa politikoei loturiko jarrera, baizik eta egitura arazoei loturikoa, kapitalismo globalak erabakimen, autoritate eta ardura publiko oro suntsitu dituelako. Herritarren arteko pertzepzioa hauxe da: politika eta instituzioak botere finantzarioen zerbitzura daude, eta ez ordea euren beharretara. Maila honetan, desjabetze materiala eta politikoen prozesuak ikusgarriak dira gaur egun.

Alderdi zahar sistemikoez zentralitatea galdu dute eta ezkerriari oro har, kostatzen ari zaio neoliberalismoari aurre egingo dion alternatiba sinesgarria gauzatzea eta klase subalternoak, egoera honetako benetako galtzaileak erdigunera ekartzea.

Bestalde, ezkerreko sektore batzuk lidergo



karismatikoen beharraz hausnartzeko aukera proposatu dute, jendea politizatze eta konfiantza faltari aurre egiteko ahalbide gisa. Proposamenak gogoetarako balio duelakoan gaude, bestelako lidergoen osaketaren orde, hiperlidergoak patrio maskulinoaren baloreen ideia bultzatuz dezakeelako: hitz batez erreferentzia hierarkikoak.

Bizi garen jendarte digitalizatuak, ordea, herritarren edota komunitatearen eta lidergoaren arteko distantzia murrizten du, eta beraz politika zuzena egiteko borondatea ere sustatzen du. Horrek eraman beharko gintuzke beste bideak bilatzera, behetik gorako logika bultzatuz, erabakimenak kolektibizatuz. Ildo honetan adibide interesgarriak badaude gure herrian, sustatzen ari garen adibideak hain zuzen ere, nahiz eta olatu indibidualistak ere harrapatu gaituen.

Borroka subjektuen ikusgarritasuna eta eragina

Feminismoak eta lurraren aldeko defentsa eta borroka agertoki politiko astindu dute, eta 2019an protagonismo berezia lortzen ari dira.

Mugimendu Feminista-ren ikusgarritasuna, legitimitatea eta mobilizatzeko gaitasuna areagotu eta indartu egin da. Mobilizaziotik harago feminismoa agendan politikoan dago, bere presentziak kapitalismoak behar duen zutoinean, hots, patriarkatuan, jomuga jarri du, zapalketa eta menderakuntza sistema nagusia delako. Sistema honen deslegitimazio eta despatriarkalizazio prozesuek abiadura hartu dute eta interesgarria izango da ikustea nola azkartzen diren.

Feminismoa lortzen ari den hedapenaren aurrean, kontrako erantzunak sortzen ari dira. Mugimendua

zaitu, instituzionalizatu, merkantilizatzeko helburua dute, eta erantzun horiek arrotzak ez izan arren, lehen, bigarren eta hirugarren olatu feministetan ere gertatu zirelako, adierazgarriena zera da kontraerantzun horiek agertoki politiko osoa zeharkatzen dutela. Batetik, eskuin-muturraren ideologiaren ardatz inportante batek “genero-ideologia” eta diskurtso moralaren defentsa fermua egiten duelako. Eta bestetik, ezkerren barruan feminismoak bestelako botere-harremanak sortzeko aurkitzen dituen galgak nabarmenak direlako. Funtsean heteropatriarkatua gaurdaino ezagutzen dugun botere ororen pedagogia eta zutoina da.

Lurraren defentsari dagokion mugimendua ere herritarren eskakizunen erdigunera pasatu da. Modernitate kapitalistak planetaren muga biofisikoekin egin du topo eta ez dugu denbora errealik ekosistemaren suntsidura ekiditeko. 2019ko bigarren seihilekoan mugimendu ekologistak – mugimendu anitza hau ere– ingurumenari buruzko agendan urrats inportanteak emateko apustua egin du izan dadila alde instituzionalean, abenduan Txilen egingo den COP 25en eskutik edo sentsibilizazio eta mobilizazioaren bidetik: energia fosilen aldeko debekuaren aldeko apustua, ikatza abandonatzeko plangintza estrategikoaren diseinu eta neurri zehatzak, energia berriztagarriren aldeko plan publikoak, keroseno, eta glifosatoaren bazterketa progresiboa...

Mugimendu ekologiko ez instituzionalak ere publikotasunaren beharra eta balore parte hartzaile eta feministak azalarazi ditu jende askorentzako, gazteak behinik behin politizatze bide bat izateaz gain.

Aurrerantzean erreferente politikoak izango diren bi mugimendu horien potentzialitatea gure egunerokoa definitzen duen binomioaren bi aldeak agertzean datza: nekropolitikaren ala bizitza eta



lurraldeen defentsa.

Pentsamendu eta pertzepzio hegemonikoen diskurtso zein markoak eskuinerantz desplazatzen ari dira

Nekropolitika eta desjabetze eta prekarizazio tekniken bidez populazioa bortizki zapaltzen eta menperatzeaz gain, ideologikoki jendartea eskuinaren markora eraman dute, eta horrela lehen ezkerari bozka ematen zionak gaur egun zentro-eskuina edo eskuinaren aukera ezberdinak bozkatzen ditu .

Ezkerra marko hegemonikotik ez da libratzen eta esaten ari garenaren bi adibide izan daitezke Europako ezkerren parte bat migrazioari buruz duen jarrera eta diskurtsoa, nahiz Estatu espainiarreko ezkerak lurraldetasun auziari buruz mantentzen eta defendatzen duena.

Dena dela, politika eta erakundeak ulertzeko maneran eskuinaren kosmobisioak kutsatu gaitu: hiperlidergoak, indibidualizazioa, hierarkia... Gure komunitatea politikoki ahalduntzeko burujabetza materialarekin batera, ez al dugu dimentsio diskurtsiboa berreskuratu behar?





-MUNDUARI SO-

HEGEMONIA KAPITALISTAREN BUKAERA?

Ondorengo lerroetan gaur egun nazioarteko sisteman gertatzen ari diren joera nagusiei erreparatuko diegu, ondoren “potentzien jokalekua” deitu dugun atalean ikuspegi geo-ekonomikotik AEBetan, Txinan eta Latinoamerikan zentratuko gara. Azkenik, Europaz jardungo dugu eta horren barruan estaturik gabeko nazioei espazioa eskainiko diegu.

2008ko krisia gertatu zen arte, kontsentsu multilateralistak agenda hegemonikoa definitzen zuen. Jakina denez, agenda hark itun komertzialak, proiektu erraldoiak eta merkatu globala sustatzen

zituen nazioarteko erakundetzea zuen helburu. Gaur ordea, honako hauek dira kapitalismo horren ezaugarriak :

- Gerra komertzialak
- Protekzionismoak
- Lehia energetikoa zein planetaren suntsidura
- Iraultzak digitalak dira
- Eta horiek segurtatzeko indarkeria, autoritarismo eta ezberdintasunaz baliatzen da herritar xumeengan eta lurraldeetan eragin guztiz toxikoa sortuz. Gerassimos Moschonasen iritziz, modernitate kapitalista krisian baino, kondizio edo



baldintza bilakatu da.

Mundu sistemari begira eta han gertatzen diren joera nagusiei erreparatuz, gogora ekarri nahi genituzke ohar bat eta etengabe errepikatzen diren bi ideia:

Gaur gaurkoz, kapitalismoaren eredu hegemonikoari aurre egingo dion **alternatibarik ez dago**. Aitzitik, potentzien arteko lehen lekuko izaten ari gara, lehia bortitza. Eta lehia horretan **bi aktore nabarmen** daude: Txina eta AEBak.

Multipolaritatearen ideia eta II. Mundu Gerraren ondotik ordena liberala ezaugarritzen joan den munduko erakunde edo instituzioen noraeza, arestian genioen oharrarekin lotuta dago.

Nazioarteko agertokian beste potentzien presentziak AEBen hegemonia ahuldu zuen mutipolaritatea zehatzuz eta bestelako joko arauen beharra azalaraziz. Trantsizio honetan ordea, elementu distorsionatzaile bat izan da, D. Trump . AEBetako Gobernura heldu zenetik multilateralismoaren kontrako etengabeko erasoak burutu ditu: gobernantza erakunde ezberdinei dirulaguntzak kenduz, gobernantza liberalak dituen arau eta akordioak hautsiz eta oztopatuz, zein armamentuaren norgehiagoka gaurkotuz. Gainera, Trumpen aliatu batzuk jarrera horri eusteko asmoa dute. Esaten ari garenaren adibideak dira, Bolsonaroaren ukoa Brasil COP25ko gailurreko egoitza izan dadin, Europako hainbat herri –Hungaria, Austria, Polonia, Txekia, Eslovakia eta Bulgariak– Munduko Migrazio Itunaren aurrean agertu duten gaitzespena, edo Japonian egin den G-20an ageri diren hainbat tendentzia.

Testuinguru honetan, AEBen eta Txinaren arteko lehiak erdigunea lortu du. Zenbait egileren iritziz, nazioarteko ordena multipolaritate egoeratik **inperialismo berri** batera iragan daiteke. Izan ere,

aldebiko akordio komertziala lortzea baino, AEBek Txinarekin duten gerra komertzialaren benetako helburua da Txina at uztea gaurdaino hainbat atal estrategikotan –5G produkzioa, auto elektrikoak eta energia alternatiboen sorkuntza– duen lidergotik . Huawei baino lehenago ZTEren krisia esaten ari garenaren adibidea dugu.

Nazioarte mailan, estatuen eta korporazio handien arteko konpetentziak markatzen duen egoeran sartzen ari gara, eta horietan erabiltzen den tresna bat gerra komertziala da. Dena dela, jarduera horrek arau propioak ezarriko ditu, aktoreen arteko konfiantza hautsiz eta ordena hori oinarritzen zen aurrerapen globalaren elementuak kolokan jarritz. Henry A. Giroux pedagogo kritikoa dioen bezala txakalen aroa bizi dugu.

Gerra komertzialekin batera, espazio eta lurraldeen okupazioak berezko garrantzia du AEB eta Txinarentzat, lurraldearen okupazio horren bidez bere botere ekonomikoa gauzatzen delako. AEBentzat funtsezkoa da Latinoamerikako lurraldeen berreskuratzea bere interesen base hemisferiko gisa, eta Txina gauza bera egiten ari da Afrikan eta Asian, baina era berean Europako ekialdean. Lurraldea botere politiko eta ekonomikoaren marka da, eta bi potentziek gerra komertziala egitetik **ekonomia globalaren gerrara** pasatu dira.

Instituzio eta erakundeen hauskortasunak –azken G5ean adibidez Trumpek ez zuen parte hartu– orain arteko akordio globalen balioa kolokan jarri du eta horri aurre egiteko **eskualde eremuko akordioak** lehenesten ari diren arren (adibidez Europa, Latinoamerika...), eskualde horietako potentzien arteko tentsioak agertzen hasi dira, eta Latinoamerika adibiderik argiena izan daiteke.

EBko herrialdeek multilateralitatearekin ohiturik daudelako egoera hau arrisku gisa bizi dezakete.



Mundua ezgonkorragoa da, potentzia eta esku pribatuen gose asegabeak nazioarteko oreka hauskorrean sakonduko duelako eta desarautzeak sortzen duen anabasa eta segur gabekotasuna gure

aro honetako logika delako. Egoera honek **Estaturik gabeko herrien prozesuetan ere eragina** du eta hainbat gako aldatu dituela kontutan izan beharko genuke.





-POTENTZIEN ARTEKO JOLASAK-

AEB: GERRAREN NORMALIZAZIOA

Trumpen America first leloa multilateralitatearen hausturaren iragarpena izan zela esan daiteke. Ideia hau hauteskunde kanpainan garatu bazuen, 2015ean presidente bihurtu zenean leloa maxima bilakatu zuen: Europarekin TTIPri buruzko negoziaketak hautsiz, Kubarekin eta Iranekin Obamak sinatu zituen akordioak apurtuz eta Klimari buruzko konferentziatik erretiratuz, Hego Korea presionatuz edota eta arestian genioenez, hainbat erakunderi diru-laguntzak

kenduz. Geroztik, Iranekiko blokeoa aldarrikatu zuen eta berriki interbentzio militarren aldeko urratsak eman ditu, Venezuelaren gatazka internazionalizatu du Errusia eta Txina posizioa hartzera behartuz eta jarraian ikusiko dugun bezala Latinoamerika berreskuratu eta okupatzeko ambizio handiko plana abiatu du.

Trumpen administrazioak polo bakarreko mundua



birdefinitu nahi izan du, baina hainbat ataletan hegemonikoa bada ere, beste potentzietan topatu da, eta haien artean Txinarekin.

Trumpen administrazioaren abantaila zera da, gainerako ekonomiak ez bezala bere ekonomiaren hazkundera positiboa dela, eta horrek alde bakarreko bidea jorratzeko eta bere botere hegemonikoa erdian jartzeko argudioak eman dizkiola. Izan ere, AEBko nekazal-ekoizle, industrialari edo nazioarteko komertzioan jarduten duten zenbaiten iritzien kontra, Trumpek dio bere ekonomiaren hazkundera %3 lortzea, inflazio txikia %1,8 eta interes tasa %2,44 izatea bere politika komertzial protekzionistaren ondorioa dela, Trumpen jarrera barne zein kanpoko gatazka iturria da, eta horrek munduko geopolitika desorekatu du.

Illo horri jarraikiz, AEB mundu-ekonomiaren motor inportanteena bada ere hainbat faktorek, besteak beste Trumpen politiken aldaketek, presidente amerikarrak Txinaren estatu-kapitalismoa isolatzeko duen obsesioak eta era berean bere ziklo hedakorraren bukaerak ezegonkortasun eta arriskuen gune izatea bilaka dezakete.

AEBen eta Txinaren arteko gerra komertzialaren arriskuak jarraituko duela esan daiteke, batik bat AEB-ek helburu bikoitza dutelako: bere defizit komertziala txikitzea eta Txinaren aurrerapen teknologikoa gelditzea. Pentsa daitekeenez, elementu horiek munduko ekonomiarentzat ardatza den nazioarteko lankidetzaren ekonomia ukitua uzten dute, AEBen eta Txinaren arteko elkarrizketa gakoa delako. Arestian aipatzen genituen hiru agertokiak, talka zuzena, elkarrizketa edota egoeraren luzapena utzi dituzte agerian, ondorengo urteetako nazioarteko harremanetako paisaia definitzearekin batera eta gerla tresna normalizatu gisa agertzen zaigu, ondorio ekonomiko eta humano lazgarriak ere normalizatuz.

Elementu horiekin batera eta datu makroez aparte, esan daiteke demokrazia amerikarraren hondatzea begi bistakoa dela, jendarte amerikarra kapitalismoak sortzen duen jendearen arteko ezberdintasunak eta polarizazio sozialen erreprodukzioa baita, beltzak, gutxiengoak eta emakumeak kaltetuenak izanik.

Gutxitan erabiltzen diren zifra horiek esaten ari garenaren adierazle adierazgarriak dira eta datu makro eta errealean arrakalez jabetzeko baliagarriak suertatzen zaizkigu: AEBetan dagoen haurren heriotza tasa mundu garatuko tasarik altuena da. Herrialde horretan 13 miloi haur pobrezian bizi dira, pobrezia tasak %11 eta 14 artean daude, eta datua AEBko hego-ekialdean %23ra igotzen da.





-POTENTZIEN ARTEKO JOLASAK-

TXINA: BEGIRADA LUZEKO APUSTUA

Txinak garapen **kapitalistaren bi dimentsioak** ditu: mendeko metatzea deitzen dena alde batetik eta ekonomian estatuaren esku hartzea bestetik. Horrek esan nahi du Txinak zuzendu eta ikerkuntza eta garapena finantzatzen dituela, BPG-en %50 ordezkatzen duen sektore pribatuaren gaineko zeharkako kontrola eramaten eta ekonomiaren erabakigunetan Estatuako enpresen bidez bere kontrola segurtatzen duela.

Mendebaldeko botereek ez dute bigarren elementu hori gustukoa, kapitalismo basatia ordezkatzen duten korporazio nagusiek ezin

dutelako nahi bezala negozioa egin, izan altzairu industrian, izan ekonomia digitalaren ordezkariak diren Google, Amazon eta Facebook, Applen esparruan.

Estatuaren kapitalismo mota honek gainera **konpromiso fermua du energia berriztagarriak gauzatzeko transtsituan**, behintzat munduari begirako konpromisoei dagokienez. CO₂ emisioak lau urtetan %30 gutxitu ditu eta COP 25eko konferentziako bultzatzaile inportanteetariko bat da.

Bestalde, Txina handia da, populazio handia du



1,405. milioi biztanle, eta horietatik 1.000 milioi populazio aktiboa da. Estatuaren strategiari jarraikiz, eskulanaren mugikortasun plangintza berezia bultzatu zuen. Era honetan, Pekingo administrazioak nekazalgunetik hirigunetara exodo erraldoia abiatu zuen helburu bakarra zuela, hots, ekoizpen beharrei erantzutea. Lan-populazio horren eskubideak eta bizi baldintzak, ordea, **erregimen bortitzaren logikari** jarraiki zioten.

Hazkunde-ekonomiarekin segituz, Txinak bere lurraldearen hiru eskualdetan lanaren banaketa estrategia gauzatu du: goi-teknologiako industria, komunikazio eta aeronautikari dagokien esparruak garatuz. **Dibertsifikazio** horren helburua potentzia ekonomiko gisa garatzea da. Deng Xiaopingek Txinari eman zion estrategia zuhurra Xi Jinping presidentek aldatu du, **mundu sistemaren barruan estrategia erasokorragoa** lehenetsiz. Pekinek badaki, ordea, nazioarteko aliatuak berenganatzeko edo hurbiltzeko herrialde erraldoi horrek dituen ahuldade iraunkorrak gainditu behar dituela, bereziki ekonomia digitala eta honen barruan sektore teknologikoa.

Ilido honetan. **Txina 2025 proiektua eta Zetaren korridore berria proiektua** (horren barruan BAII inbertsio bankuaren osaketa dago) estrategikoak dira. Proiektu horiek helburu ezberdinei eta misio bati erantzuten diete. Hala, Eurasian interes txinatarrekin bat egiten duten azpiegiturak eraiki nahi ditu Txinak, barne mailan duten gehiegizko gaitasun eta ekoizpena gainditzeaz batera, teknologikoki independente izateaz batera eta nazioarteko merkatuan balore globalen eskalaren beheko tokiak abandonatzearekin batera. Misioari dagokionez, proiektu horiek Txina autosufizientzia egoeran kokatzen dute, Asiako eskualdean merkatu eta espazio propio bat sortzeko lanabesak ematen dizkiolako, eta AEBen balore eta arauetatik kanpo kokatzen dutelako hein berean, narratiba neoinperialista berri batean kokatuz.

Txina **Neoliberalismo globaleko potentzia kapitalista da**, eta estatu kapitalismoa defendatzen du. Izate horrek ordena neoliberaletik profitatzeko aukera ematen dion bitartean, ordena neoliberalarentzat eta hura zaintzen duen AEBentzat arronka arriskutsua dakar: Txinak Errusiarekin duen aliantza estrategikoa indartu du, Argentina eta Brasil bere soja-iturri nagusiak bilakatu ditu (Amerikar nekazarien kalterako, Trump-en oinarri tradizionala) eta mundu mailako finantza gune gisa, eta Hong Kong-en ordezkatzeko, Shenzhenen ezartzen ari da.

AEBk badakite gaur gaurkoz teknologikoki, ekonomikoki, diplomatikoki eta militarri nagusigoak direla, jakin ere badaki Txinak, batez beste, errenta ahula duela, biztanleko BPGari begiratzen bazaio horrek ez baitu %15 lortzen. Baina bere boterea mehatxatua sentitzen du, Txina Munduko BPGaren zerrendan bigarrena delako, merkataritza-superabita errekorrak gainditzen dituelako: 375 milioi dolarrekoa da, Estatu Batuetako faktura komertzialaren ia erdia (% 47,2) eta zenbaki horiek baieztatzen dutelako Txinak epe luzerako begirada duela.

Gainera, Txinak badu oso kontutan hartu beharko genukeen ezaugarri interesgarri bat: **erdi kolonia izan den lehen herrialde inperialista** dugu. Elementu horrek Taiwanekin mantentzen duen gatazka ulertzeko, ez iritzi bera izateko, gakoa ematen digu.

Ondare kolonialaren desabantailak eraman du Txinako Alderdi Komunista inperialismo amerikarraren aurrean momentuz defentsibara jokatzera, baina hori ere arestian esan dugunarekin aldatzen ari da.

Txina eta AEBen artean diferentzia nabarmena dago, AEBek ez bezala Asiako erraldoiak ez du bokazio mesianikorik. Izan ere, Txinak ez du bere proiektu politikoa esportatu nahi, ez dizkie balizko aliatuei erreforma politikoak eskatzen (hori nabarmena da



Asian Ekialde Hurbilean eta Afrikan, adibidez) multilateralitatea defendatzen du, eta gobernantza globalaren sistemaren erreforman aktiboki parte hartu nahi du. Xi Jinpingen diplomaziaren giltza bere interes ekonomikoak dira.

Asiako potentzia honek ere bere **moneta nazioartekotu du** dolarren eskakizunei erantzuteko eta monopolioa ahultzeko, eta Iran eta Errusiarekin batera nazioarteko sistema euren aldera birkokatzeko. Halere, Txinak baditu ezberdintasunak Errusia eta Iranekin gobernantza globalaz, burujabetzaz eta nazioarteko ordena berrantolatzeaz, nagusiki Asiako herrialde horrek bere interes ekonomikoak segurtatu nahi dituelako eta beste bi potentziek lotura transatlantikoa ahuldu eta dauden banaketak erabili eta aprobetxatu nahi dituztelako.





-POTENTZIEN ARTEKO JOLASAK-

LATINOAMERIKA: TRUMPEN EREDU INPERIALISTARAKO GILTZA

Latinoamerikako Gobernu aurrerakoien galera eta eskuin erreazionarioen gobernu berrien presentziak interes inperialistentzako sarbide ezin hobeagoa izan dira. Zeharo argigarriak ditugu Macriren presidentzia, Dilma Rousseffen *impeachment*-a eta Lularen kartzelatzea, Rafael Correa eta bere taldekideen kriminalizazio saiakerak eta Munduko Funtsarekin Lenin Morenok eginiko akordioa, Trumpen administrazioak aurrera eraman dituen mugimendu, operatibo, posizionamendu eta akordio politiko-militar eta finantzarioen aniztasunak botere

hegemonikoen itzulerarako bidea ekarri du, eta horien eskutik kontinentearen lurraldetasuna berreskuratzeko estrategia martxan jarri da. Neoliberalismoari aurre egiteko zikloak, gainera, osagarri erregionala zuen, agian hasi berria eta ez nahikoa, baina AEBen eraginari galga jarri ziona. Esan dezakegu harresi positiboa eraiki zuela, gaur ordea harresi horrek aldaketak izan ditu, prozesuak uniformeak ez izateaz gain, kanpo zein barruko faktoreen jomuga direlako. Ondorengo hilabeteak interesgarriak izango dira jakiteko zertan geratuko



den Latinamerikako olatu aurrerakoia edo zer-nolako jitea hartuko duen. Venezuela, Uruguay, Kuba, Ekuador, Bolivia eta Argentinan izango diren prozesuak jomugan izango ditugu.

Monroe doktrina itzuli da, gogor gainera.

AEBen interesen helburua Latinoamerikako hemisferioen kontrola eta berreskuratzea da, eta horretarako Trumpen administrazioa kontinentean gertaturiko botere-orekaren modifikazioaz baliatu da. Menderatze erregionalaren politika honen osagaiak ondorengoak dira: kolpe parlamentarioak, lankidetzak militar iraunkorrak edo bereziak, herrialde ezberdinetako indar armatuen entrenatze militarra, trebakuntza eta doktrinamendua, eliteen formakuntza, barne etsaien kontra jotzeko salbuespen-egoera kontsolidatzen duten aldaketa normatiboak, base militarra, segurtasun eta defentsa aurrekontuen igoera, goi-mailako sofistikaziozko zaintza militarra, inteligentzia sistema kooperatiboak, oinarrizko zerbitzu eta elikagaien sabotajeak, blokeo komertzialak eta finantzarioak, zorra, legearen erabilpena eta lurraldeen kontrola eskuratzeko suntsidura naturalen erabilpena.

Militarizazioa, ekonomia globalaren motorra den bezala, Trumpen kanpo politikaren ardatz inportantea da. Bere gobernu aliatuek, besteak beste Txile, Argentina, Peru, Brasil ongizatearen politiken aldeko aurrekontuak alboratu eta defentsa eta segurtasun politikak indartu dituzte, eredu kapitalista basatia eta militarizazio eta autoritarismo kultura inposatuz. Estrategia hori AEBek duten Hegoaldeko komandoaren esku dago. Komando horrek hiru lerro nagusi ditu: estrategia trumpiarrarekin bat datozen gobernuarekin harremanak sakontzea, horren kontra dagoen disidentzia eta sareak neutralizatzea – Venezuela adibidez– ,eta tokian tokiko erantzun azkarrak prestatzea: Honduras, Nikaragua...

2017tik **Venezuela** setiatuta dago. AEBen

presentzia militarra nabarmendu egin zen Caribe-Amazona arroan Venezuelako Gobernuaren eta oposizioaren arteko elkarrizketak izan zirenetik. Geroztik gertakizunen arabera eremu osoan indar militarra hedatzen joan dira: Panama eta Trinidad y Tobagon, esaterako. Esku-hartze militarren mehatxua beti presente egon da, eta tarte guzti horretan Kolonbiaren eta Peruren papera erabakigarria izan da. Kolonbiak krisi humanitarioaren aitzakia erabili duen bitartean, Peruk Limako taldea bere lurraldean hartu eta eskualdean indar militar amerikarren ezarpenean parte hartu du. Egoera horri erantsi behar zaio Guaido kolpistaren ekimenez, Venezuela TIAR deritzon akordioaren baitan kokatu nahi izatea. Bide horrek itunaren sinatzaileen esku-hartze militarra errazten du.

Kontinentearen berreskuratze inperialistaren estrategiaren baitan **Kolonbiak** beste rol bat jokatu du, 2018tik NATO kide delako eta faktore horrek nazioarteko markoaren aldaketa kualitatiboak ahalbidetzen dituelako. Era berean, azken hauteskundeetan Uriberen jarraitzaile eta ikasle izan den Ivan Duque irabazi zuelako. Bi gertakizun horiek barne- eta kanpo-politikaren gogortze bat ekarri dute. 2016tik disidentziako 620 pertsona erail dituzte, eta 2019ko hasieratik 39 erailketak gertatu dira: FARCEko kide ohiak, haien senitartekoak, buruzagi indigenak, sindikalistak.... Eta bestalde, Kolonbia NATO kide izateak bera inplikatu dagoen gatazka orotan NATO kideen presentzia ahalbidetzen duelako. Inperialismoak behar zuen aitzakia badu orain.

Gainera, ez dezagun ahantz AEBentzat eskualdearen –kontinentea– segurtasun sisteman OEA deiturikoak berebiziko garrantzia duela. Horretan AEBk bere eragina hedatu dezake eta horretarako Kanadaren laguntzaz gain, Erdialdeko Amerikako hainbat herriren babesa dutela. Horrek AEBei ahalbideratzen die Erregioari buruzko gaiak jorratzea Nazio Batuetako Segurtasun Kontseilutik pasatzeke, irail honetan TIAR aplikatzean gertatu den bezala.



Ildo horren kontra eta Venezuelako egoerari soluziobide politikoa bilatzeko asmoz, oso interesgarriak izan dira **Mexiko eta Uruguai** proposaturiko topaketak. Topaketa horiek Osloko elkarrizketa prozesuari tokia utzi zioten. Marko militarizatu eta kolpista protagonista bilakatzen ari zen unean, elkarrizketaren bideak eta alde guztien presentzia aldarrikatzeak kontinentearen burujabetza eta kanpoko esku-hartzearen ukoa erdigunera ekarri zituen.

Venezuela Trumpen jomuga da, eta ez du bitartekorik ez eta biderik aurreztuko Venezuelako Gobernuaren suntsitzeko. Are gehiago gatazka horren soluziobideak kontinentearen etorkizuna marraztuko du. Trumpen administrazioarentzat Maduroren Gobernuarekin eta ondorioz chavismoaren filosofiarekin bukatzeak indar korrelaziorako garrantzi handia izango luke nahiz eta ALBA eta Petrocariberekin harremana duten Karibe eta Ertamerikako herrialdeentzako ondorio larriak pairatuko lituzkeen.

Egoera lazgarri horiek, ordea, ezkerreko mugimendu sozialen gogoeta astindu dute, etsaiaz huts egiteke hainbat gobernu aurrerakoik boterera eraman zituzten politikak sahiestu eta horien ordean, politika autoritarioak eta ez distributiboak burutu dituzte, agintearen eta herritarren arteko distantzia eta mesfidantza sortuz. Ez gabilta botereak sortzen dituen kontraesanez mintzatzen, baizik eta praktika ustelez edo ez etikoez, eta Latinoamerikako ezkerrearen adierazpide oro ez da praktika horietatik aparte izan.

Lawfare edo politikaren judizializazioa ez da desagertu kontinentean. 2012an, Fernando Lugorekin Paraguayn hasi zen, Dilma Rousseffek kontrako impeachment-ak segitu zion eta Lularen aurkakoa adibiderik bortitzena izan da, baina logika berak aurrera jarraitzen du Ekuadorko Lenin Morenok Rafael

Correa eta bere gobernuaren kontrako akusazioak aurkeztu dituelako. Funtsean lawfare disidentzia politikoa kontrolatu eta diziplinatzeako kontrol mekanismoa da. Disidentziaren kriminalizazioaren aurrean, nazioarteko erakundeak isilik gelditu dira, edota herrialde demokratikoak indiferente. Ondotxo dakite hau Latinoamerikan.

Esaten ari garen logika hegemonikotik kanpo dago **Mexiko**. Lopez Obradorren garaipena herritar eta subalternoen nekea eta haserre sozialaren ondorioa izan zen, eta norabide geopolitiko berri bat zehaztu dezake, Mexikon gertatu ziren mobilizazio handiek etorkizuneko erabaki eta definizioetan herritarren parte-hartzea adierazten dutelako. Mobilizazioek presidente berriaren hautapena bera baino transzendentzia gehiago daukate, nazioaren balore historikoen berreskuratzeko, eta estatuaren suntsidura ekiditeko apustu garbia direlako. Erabaki hori mantenduko ote den eta etorkizuneko norabideetan eragina izango duen ikusteko dago. Lopez Obradorrek badaki, baina, herri mugimenduaren txeki zuririk ez duela. Eta bere jardura zaintzapean dago, hala Gobernuaren lehen urratsek enpresa-mundua lasaitu nahi izan duten arren, Venezuelako oposizioak OEAn duen presentzia gaitzetsi du. Beraz, inork ez daki Trumpen gobernuarekin izango duen jarreraren nolakotasuna.

Presidente berriaren lehentasunak inpunitatea saihestu eta zuzenbide-estatua ezartzea badira ere, betebeharrak dira narkoen kontrako politika birdefinitzea eskatzen dutelako, eta politika hori, ez dezagun ahaztu, AEBen harremanetarako zutaina delako migrazio fluxuaren kontrolarekin batera. Garbi dagoena zera da: Mexiko estrategia kontinentalaren barruko pieza inportanteetariko bat da.

Latinoamerikako hainbat herrialdek pairatzen dituzten Trumpen politika protekzionistaren mehatxu edota zailtasun ekonomikoek beste botere politikoetara



jotzera bultzatu dituzte. Txina eta Errusiaren presentzia kontinentean ere nabariak dira, Venezuela, Uruguai edota Bolivia, potentzia horien proiektu ekonomiko eta inbertsioen hartzaile dira. Eta horrela eginez, **Latinoamerika interes neoliberalen kodizia** gune bilakatu da.

Hauteskunde zikloa dugu Latinoamerikan. Joan den urtean Kuban martxoan egin ziren, eta Diaz Canel hautatu zuten: belaunaldi erreleboa abian dago, euren erritmoa, eta ez kanpoko interes inperialisten arabera. Kubak inperialismoaren jomugan – segitzen badu ere –H. Burtonen aplikazio berriak, 10. artikulua...– herrialdeak bere erreformen bideari segitzen dio. 2018ko bukaeran konstituzio erreforma onartu zuen, eta orain trantsizio fase bati hasiera eman zaio aurrean dituen erronkez kontziente eta munstro inperialistaren eraso politiko, ekonomiko eta kulturaleri determinazioz aurre egiten.

Udazkeneko hauteskundeak urriaren 20an Bolivian izan dira. Aste bete geroago, 27an, Argentinan, eta Uruguairen txanda izango da. Erronka eta ikusmin handia dago bereziki Bolivia eta Uruguairen kasuan, herri-burujabetzaren alde eta herritarren ongizatearen aldeko bidean sakontzea jokatzeko delako eta Argentinaren kasuan estatu neoliberalaren norabidea aldatzeko aukera dagoelako. Baina, era berean, duela hamar urte kontinente horretan ireki zen zikloa, politika aurrerakoiei leiho bat ireki eta pertsonak eta lurraldeak erdigunean jartzeko aukera dagoelako. Seguru aski Venezuelako egoerak jaso daitekeen eraso inperialistari begira ere urrian gertatuko diren aldaketa politiko instituzionalak inportanteak izango dira.

Latinoamerikan beraz bi logika aurrez aurre daude: **herrien burujabetza eta aurpegi ezberdinen inperioaren logika**. Bi proiektu horien arteko talkak ezkerari eta herri-sektoreei gogoeta eta estrategia berritzeko eta birkokatzeko eskatzen die, eta dagoeneko abian dira.





-POTENTZIEN ARTEKO JOLASAK-

EUROPA: QUO VADIS?

Europako Batasuneko hauteskundeetako emaitzek espero ziren hainbat joera agertu bazituzten ere, ustekabeko beste batzuk eskaini zituzten

- ▶ Populazioaren parte hartzea handitu egin zen, eta %50,2koa izan zen.
- ▶ Alderdi nagusien oreka –PSE/PPE– hautsi da, eta horrek aliantza berriak osatzea eta alderdien arteko joko berriak dakar. Kotsentsuren politikak tokia irabazi du, eta hori berez interesgarria da, baina ikusita pertzepzio eta ideien markoek eskuineratzeko joera hartu dutela, agertoki

politikoa ildo horretarantz lerrokatuko dela dirudi

- ▶ Eskuin muturraren presentzia inportantea izan da, baina ez espero beste. Halere, ez genuke indar autoritario, xenofobo eta matxista hori gutxietsi behar, esaten genuenaren harira agertoki politikoa eskuinerantz mugitu duelako.
- ▶ Liberalen garaia da, talde hori determinantea izango da, nahiz eta homogeneoa ez den, eta horren barruan Macronek paper inportante bat jokatuko du.



▶ Berdeen protagonismoa garrantzitsua izan da. Klimaren auzia ondorengo legistaturaren ardatz inportanteetako bat izango da, eta Europako Batasunari munduko agertokian paper berezitua jokatzeko aukera eskainiko dio.

▶ Ezkerraren galera handia izan da, 52tik 38 diputatuetara pasatuz. Oro har eta Bloco eta EH Bilduren kasuaz harago, bozken galera handia izan da. Ezkerra ez da gai izan sozial-liberalismoaren aurrean estrategia sineskor eta propioa osatzeko.

▶ Estaturik gabekoen presentzia ukalezina da, inoiz baino ikusgarriagoa. Proiektu politiko eta interes ezberdinek Europako parlamentuko talde ezberdinetan ordezkariak kokatzera eraman dituzte. Halere, aukera badago estaturik gabeko nazioen aldeko eragin talde bat osatzeko. bai eta estaturik gabeko hainbat nazioen artean aliantza eta politikak sinkronizatzeko.

Legealdi berriaren ibilbideak Europako Batasunaren norabidea birpentsatzeko aukera bat izan beharko luke, are gehiago ziklo eta proiektu batzuk bere mugara heldu direnean: Barrosoren batzordeak abiatu zuen Europa 2020 estrategia edo Junckerren hamar lehentasunen plangintza kasu. Baina **Europako gobernantza globalizazio gobernantzaren dispositiboa** den heinean, funtsezko aldaketarako espaziorik ez du utziko. EBk Demokraziaren pribatizazioa du helburu, eta ideia horren kontrako oztopo oro saihestuko du; horren adibide izan daiteke azken krisiaren kausa eta ondorioei buruzko diagnostiko komuna oraindik ez izatea, edo ondorengo auziei buruzko debaterik ez gauzatzea.

▶ Brexit: Erresuma Batua EBtik ateratzea urriaren 31rako aurreikusita dago, baina akordioaren nolakotasuna oraindik inork ez badaki ere, akordio ezak gero eta aukera handiagoa du.

▶ Errefuxiatuen krisia deitu denak azalarazi du EBan irizpide komunaren gabezia, nahiz eta horretarako ahalmen politiko eta teknikoak izan.

▶ 2011/12an euroaren krisia izan zenetik falta den debatea. Debatearen muina eurogunea egonkortzeko beharrezkoak liratekeen erreformak dira. Baina 2018ko abenduko gailurretik eztabaida hori kolapsaturik dago. Eta badakigu euroaren politikek zer ondorio izan dituzten langileengan.

▶ Polonia, Hungaria eta Errumaniako gobernu autoritario, xenofobo eta homofobo onarpenari buruzko debatea.

Europako Batasunaren sistema ekonomikoa noraezean dabil, ez da gai izan azken krisia gertatu eta hamar urtera herritarrentzako jasangarritasun baldintzak sikiera proiektatzeko, eta bere politikek oso egoera zaurgarrian utzi ditu herritarrak. Ondorengo legealdian, eta beste atzeraldi ekonomiko baten aurreikuspenak betetzen ari diren honetan, EBak izango dituen hainbat erronka honakoak izan daitezke:

▶ Gaur egungo ibilbide ekonomiko eta sozialaren zalantzan jartzea eta ondorioz Junckerren batzordeak zehaztu zuen zutoin ekonomiko eta sozialaren birkokapen loteslea.

▶ Aldaketa klimatikoak eskatzen duen trantsizio baterako agenda zehaztea eta aurrekontuen partida horretara egokitzea.

▶ Konbergentzia prozesuen berrikusketa eta estatukide ororentzat adierazleen homologazioa.

▶ Politika fiskalaren harmonizazio europarra.

▶ Instituzio eta erakunde europarraren demokratizazioa segurtatzea; erabaki publikoak eta arlo publikoa sendotzearen bidez.



▶ Merkataritza justua eta solidariorako urratsak ematea.

▶ Estaturik gabeko nazioen aitortza.

Ez gabiltza oker, ordea, eta EB zer den ondotxo dakigu, baina herri eta pertsona burujabeen aldeko borrokan dagoen herria gara, eta aske izaten uzten ez diguten baldintzak, egiturak eta estrategiak politizatu nahi ditugu, horrela askapen bidean jarriko ditugula uste baitugu. Horregatik estaturik gabeko beste nazio batzuekiko eta Europako herrien arteko artikulazioa eta lankidetzak garrantzitsuak izango dira, Bruselari begira ere batzen gaituena landuz eta bereizten gaituena errespetatuz. **EBko espazioa beraz borroka gunea dugu.**

Estaturik gabeko nazioen erronkei begira

Jarraian ikusiko dugun bezala, aipaturiko testuinguruak estaturik gabeko nazioetan eragin zuzena du. Ondoren, Europako hirutan oinarrituko gara: Eskozia, Katalunia eta Flandrian. Hiru horien oztopoei eta erronkei erreparatuko diegu. Hirurak, aitzitik, burujabetza prozesu material eta formal batean murgildurik daudela eta, burujabetza territorialean sakontzeko erronka izango dute hurrengo urteetan. (taula)

	Aukerak eta erronkak	Oztopoak
Eskozia	<p>Eskoziarren agenda bi erronkak betetzen dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Brexita saihestea erreferenduma edo hauteskunde orokorren bidez, Corbynek gobernatzeko SNPren sostengua beharko duelakoan. • Independentziari buruzko 2. erreferenduma egiteko aukera ondoko faktoreek bultzatu dute: Londonek aurreko erreferendumaren balantza bere alde lerratzeko eginiko promesak hautsi izanak, Londresko birzentralizazio joerak eta status quo-aren desagertpenak. • Nicola Sturgeonek bigarren erreferendum horren balizko aukera adierazi du eta ildo horretan 2020rako legislatzen ari da. • Barne mailan, alor instituzionalean eskubide sozialak bermatzeko erronka dago, Londresko aurrekontua gutxitzen ari delako. • Independentziaren aldeko mugimendua berrantolatzeke beharra. 	<ul style="list-style-type: none"> • Londresko Gobernuak eta alderdi kontserbadoreek ezezko biribila eman diote independentziari buruzko erreferenduma egiteko eskumen transferentziari • Ez dirudi ordea oztopo gaindiezina denik, erreferendum hori gauzatzeko mandatu demokratikoa argi dagoelako. • Bestela 2021ko hauteskunde eskoziarrak ere plebiszitu moduan planteatu zitezkeen. • Ikusteko dago ordea legislazioa Erresuma Batuko Epaitegi Gorenaren aurrean eramango den. • Era berean, erreferendumaren emaitzen zilegitasunaz EBaren jarrerak ez dirudi garbia, Brexitaren testuinguruan, Eskoziaren alde izan litekeelako.



Katalunia	<ul style="list-style-type: none"> • Kataluniako Hauteskundeak eta horren arabera independentisten arteko bide-orria adostea. • Epaiketaren sententziaren aurrean emango den erantzuna eta kudeaketa. 	<ul style="list-style-type: none"> • ERC eta Junts per Cat-en arteko barne hegemoniaren lehiak aurrera darrai. • Ildo horretan maiatzaren 26ko hauteskundeek ez diote egoerari argitzeko aukera handirik eman, ERCren alde lerratzen den arren. • Epaiketaren epai irmoa izatea. Puigdemont-en egoera juridikoaren balizko aldaketa ekar lezake eta Bruselaren jarreraren birkokapena. • Konbergenteen zatiketa errealitate bat da, eta Kataluniako hauteskundeei begira, M. Pascal-ek lideratuko duen alderdia sortzear dago. Horrek sorrarazten duen pragmatismo arriskutsuaren ideia azalduz. • CUPen egoera konplexua da. • Sanchezen Gobernuak hartuko duen jarrera eta balizko hirugarren bidearen ahalbidearen aurrean aktore katalanen posizionamendua.
Flandria	<ul style="list-style-type: none"> • Europako Hauteskundeekin batera egin ziren Flandriako hauteskundeetan alderdi independentistak %44 igo ziren. Independentziaren aldeko jarrera populazioaren %70ekoa da . Eta independentziaren aldeko eskuinetik at kokatzen diren talde berrien presentzia, berdeak adibidez. • Flandriako gobernuak ezin da NV-A-rik gabe osatu • Gobernu federala osatzeko zailtasunak estatu zentrala deslegitimatzen du eta erreforma konstituzionala bati begira eta konfederazioa sortzeko aukera interesgarriak sortzen dituzte 	<ul style="list-style-type: none"> • Flandria eta Waloniako alderdien arteko diferentziak direla eta, oso zaila izango da gobernu federala osatzea. • Flandriako gobernuari dagokionez, NV-A, VLD, alderdi liberala eta CD&V alderdi kristau-demokrataren arteko gobernu osatzeko aukera handia dago, eta gobernu hori NV-Ako Jan Jambon independentista lideratuko du. • Flandriako independentismoaren eskuindar naturaren ondorioz, NV-A Europako Parlamentuko ECR taldean sartzeak zail ditzakeen hainbat lankidetzak. • Brusela hiria lehiagune politikoa izaten segitzen du

Horiek dira Europako prozesu independentista aurreratuenak, Flandrian eta Eskozian independentismoaren barruko lehia elektoral inportanterik ez dago, hurrenez hurren SNP, eta NVA alderdi hegemonikoak direlako. Katalunian, ordea, barne lehia politiko inportanteak izanik ere, prozesu independentista bultzatzeko gai izan dira. Baina lehia elektoral horrek, hegemonia eskuratzeko lehiak alegia, oztopo inportante eta mingarriak sortu ditu. Esan

dezakegu, beraz, prozesu independentista garatzeko hegemonia eskuratzeko edota haren faltaren kudeaketa funtsezko faktorea izango dela: Eskozian eta Flandrian ikusi dugu, baina era berean Irlandan, Korsikan edota gure herrian.

XXI. mendea nazio zaharrak estatu berriak bilakatzeko agertokia zango da, Kaledonia Berriaren hurrengo erreferenduma 2020rako aurreikusia dago,



eta kontuan hartuta 2018an lorturiko emaitzak -%57,
Estatu frantsesean segitzearen alde eta %43,3
Kaledoniar independentziaren alde- aukera handia

dago independentziaren aldeko nagusigoa lortu eta
FLNK botere alternatibo bilakatzeko .





-HIRU ESPARRU ETA ERRONKAK-

EZKERRAREN ESPARRUAK

Ezkerra porrot historiko batetik dator. Ibilbidea zaildu dute ezkerreko adierazpen ezberdinen arteko sinkronizazio ezak, indarren galerak, atomizazioak sortu duen indar aurrerakoien potentzialitate ahulak eta komunitate bat osatzeko zailtasunak. Ondorioz, ezkerra ez da gai izan globalizazio kapitalistari alternatiba emateko, banaketa horiek gainditzeko. Orube komuna osatzeko subjektu politiko demokratikoa berrosatu behar da. Jendartearen baitan aldaketak ikusita eta horrek militantzia-ereduan izan duen eragina kontutan hartuta, subjektu horren osaketak elementu diferente eta anitzak izan behar ditu, eta uste dugu borroken arteko artikulazioak

lehenetsi beharreko faktorea izan beharko lukeela.

Subjektu politiko berriak hainbat logikari erreparatu beharko dio:

Tokia tokiko dinamikak: pertsonen eskubideak erdigunean jarriz, garapen ekonomikoa herritarren beharretara bideratzeko tresnak garatuz, desjabetze-prozesuei jabetza kolektiboa kontrajarriz, autoritarismoaren aurrean elkartasun olatu bat altxatuz, xenofobiari bizikidetzatza demokratikoa erantzunez, trantsizio feministaren bidea eginez, baliabide naturalak zainduz, trantsizio



energetikoaren aldeko praxiak eta prozesu eragileak abiatuz.

Erakundetze prozesu integralak proposatzea: gizarte-kohesioaren aldeko urratsak emateko ereduak sortzea, erronka komunei erantzuteko gaitasun kolektiboa lantzea, erakundetze feministak sortzeko ereduak bultzatzea, publikotasuna berreskuratzea.

Prozesu herrigileak abiatzea, esku-hartze komunitario serioak behar ditugulako.

Euskal Herrian dugun esperientziatik abiatuz, esan dezakegu alternatiba globala osatzeko dinamika parte-hartzaile eta komunitarioak behar direla edo bestela esanda demokrazia lurraldetu behar dela.

Nazio auzia, borroka sozialaren auziaren motorra izan da gure herrian. Eraldaketa prozesuek burujabetza izan dute oinarri eta artikulazio gune izan dira gurean, demosak beren buruari dagozkion afera guziak gobernatzeko gaitasuna izango duen prozesu dinamiko, bizi eta sakona abiatu nahi dugulako. Burujabetza dugu ardatz eta pluralean deklinatzen dugu.

Transformazio demokratiko baterako ardatzez ari gara, oinarrizko praktikaz. Bi logika, beraz, tokian tokiko dinamika eta logika herrigileak eta beste indar aurrerakoiekin batera bizitza eta lurraldeen aldeko agenda globala finkatzean dugu erronka.





-HIRU ESPARRU ETA ERRONKAK-

ESTATURIK GABEKO NAZIOAK: ARTIKULAZIOA ETA LANKIDETZA

Estatu-rik gabeko prozesu independentistak anitzak eta ezberdinak badira ere, ondoko faktoreek osatzen duten gogoeta partekatzen dute:

- ▶ Estaturik gabeko nazioetako gobernuetan agenda independentista duten alderdi hegemonikoak izateak prozesu independentistaren aldeko urratsak emateko bermea da: Eskoziako SNP, Katalunia, Flandriako NV-A, Ipar Irlandako SF. Ez da, gure herrian gauza bera gertatzen, adibidez.
- ▶ Europako esparruan estaturik gabeko

aldarrikapenak bide demokratikoaren bidez bideratzen hasiak dira, eta badirudi bide hau inposatzen ari dela: Eskozia, Faroe, Ipar Irlanda. Dakigun bezala, bide hori ez da Estatu espainiarrean gertatzen, Katalunia dugu horren adibide.

- ▶ Ildo honetan, nazio ukatuen aldetik estatua demokratizatzeko aldarrikapen iraunkorrek eta estatuari autodeterminazio eskubidea aitortzeko etengabeko deiak aintzat hartzeko arrazoiak izan daitezke nazioarteko komunitateak



aldebakartasunaren erreferenduma onar dezan .
Katalunia eta Kosovo dira horren adibide.

- ▶ Arestian aipatu dugun faktore hegemonikoa. Faktore horren kudeaketa aukera edo oztopo bilaka daitekeelako.
- ▶ Nazioarteko komunitatearen jarrera inportantea da, gaur gaurkoz Europaren jarrera antzekoa izan da Eskozia, Flandria edota Kataluniaren auzien aurrean, baina nazioarteko koiunturak alda dezake prozesu independentisten garapena.

Beraz gogoeta hau abiapuntu izanik, eta prozesu bakoitzak izate propioa daukala jakinik, estaturik gabeko nazioek euren burujabetza formala eta materiala lortzeko bidea sendotzeko asmoz, beraien arteko hainbat praktika eta jarduera sinkronizatzearen aldeko apustua egin dute. Bide horretan, Europan estaturik gabeko herrien arteko artikulazio- eta lankidetzak bultzatzea gakoak izan daiteke. Gure kasuan, hauteskunde legegileek eta europarrek lankidetzak esparru bat eskaini ziguten, beste fase bati hasiera emanez.





-HIRU ESPARRU ETA ERRONKAK-

ASKAPEN MUGIMENDUAK: ELKARTASUNA ETA LANKIDETZA

Ezker abertzaleak munduan zehar dauden askapen mugimenduekin harremanak ditu. Lankidetzaren eta elkartasunaren ardatz, beste askapen mugimenduekin ditugun esperientziak eta jakintzen elkar trukaketek aberasten gaituzte, eta era berean mundu mailako dinamika eraldatzaileetan ere kokatzen gaituzte.

Gaur askapen prozesuek izan duten paradigma aldaketa dela eta, ondokoak dira lantzen ditugun esparru horietariko batzuk: instituzionalizazio prozesuen zailtasunak eta gobernu parte hartzaileak; herritartasun askatzailea; gatazken ondorioen kudeaketa; memoria eta errelato askatzailea, eta despatriarkalizazio-bide parte-hartzaileak.





